

urola erdia

Azpeitiko elkarteetan euskararen erabilera sustatu nahi du Udalak

KIROLA, GASTRONOMIA
ETA KULTURA LANTZEN
DUTEN 110 TALDE DAUDE

Patronatuak hizkuntza zerbitzu katalogo berria egin du eta aste honetan banatuko du

KRISTINA FERNÁNDEZ

AZPEITIA. Azpeitiko Udalak herriko elkarte desberdinetan euskara erabiltzea sustatu nahi du eta, horregatik, hizkuntza zerbitzuen katalogo berria banatzen hasiko da aste honetan. "Ahozko hizkuntza euskara dela badakigu, baina idatzian gaztelera jotzen da eta hau aldatzea da gure erronka", adierazi zuen Euskara batzordeburua den Ana Mendizabalek.

Udalak eskaintako datuen arabera, 110 gastronomia, kirol edota kultura elkarte desberdin daude gaur egun herrian eta guztira 15.000 bazkide dituzte denen artean. "Urtean zehar 24.000 pertsona biltzen dira elkarte hauen inguruan, eta hauetako hamahiru taldek eun bazkide baino gehiago dituzte. Beraz duten garrantzia nabarmena dela uste dugu", esan zuen Euskara Patronatuko zuzendariak, Patxi Saezek.

Bai ahoz eta bai idatziz euskaraz egiteko hainbat aukera eskaintzen ditu Patronatuak, eta horretarako laguntza eskuragarri izango dute. Liburuak, hiztegiak edota kartelak emango dizkiete elkarte bakoitzari, "guztiz doan".

Bestalde, aktak eta agiriak euskaraz egiteko ikastaro laburra ere abian jarriko dutela aurreratu zuten. "Idazkariak askotan aldatzen joaten dira horrelako egoeretan eta, horregatik, sei



Ana Mendizabal, Euskara batzordeburua, eta Patxi Saez, Patronatuko zuzendaria. ARGAZKIA: K.F.

orduko ikastaroa antolatuko dugu. Ordu gutxiko ikastaroa izanik, ahalik eta jende gehien animatzea nahiko genuke", azaldu zuen Saezek.

Horrez gain, elkarte gastronomikoetan aplikazio informatikoa jarrezko diru laguntzak emango dituzte, "baliagarriak direlako diru kon-

tu eta paper desberdinak egiterako orduan", adierazi zuen Euskara Patronatuko zuzendariak. Softekin enpresaren *Elkartak* izeneko aplikazioak 1.200 euroko kostua du baina Azpeitiko Udalak erdia bere gain hartuko du, 600 euroko laguntza emanez.

"Diru laguntza jasotzeko, Udalak aplikazioa abian jarri izana, erabiltzea eta euskaraz dela egiaztatu beharko du", ohartarazi zuen Ana Mendizabalek.

KONPROMISOA ONESTEA Dagoeneko 45 elkarterekin bildu dira Euskara Patronatuko kideak, talde bakoitzak dituen hizkuntza hu-

tsuneak edo beharrak aurkitu eta betetzeko asmoz eta "guztiekin beren konpromisoa eta baiezkotza eman digute, orain ordea, elkarte bakoitzak batzar nagusian konpromiso hau era formalean onestea eskatzen dugu", azaldu zuen Patxi Saezek.

Lagun Onak Futbol Taldeko ordezkariekin oraindik ez dira bildu, baina elkarte lehendakariak aurreratu zuten elkartuko dira hitz egiteko, "eta gure aldetik ahalik eta gehien egingo dugu euskara hizkuntza bakarra izan dadin. Hori da gure helburua behintzat", esan zuen Joxe Mari Larrañagak.

Besteak beste, aplikazio informatikoa edota hiztegiak eskainiko ditu Udalak

San Inazioetako zezenketako dirua banatu dute



AZPEITIA. Azpeitiko Udalak 2006ko San Inazioetako zezenketetan lortutako irabaziak banatu zituen larunbatean, irudiko ekitaldian. Guztira, 9.600 euro banatu zituen Caritasen,

San Martin egoitzaren eta Sierben artean, erakunde bakoitzak 3.200 euro jaso zituelarik. Julian Eizmendi alkateak Zezenzale Batzordearen lana eskertu zuen. ARGAZKIA: TXAKEL

Las campanas de San Martín de Azkoitia dejan de repicar



AZKOITIA. Técnicos del Ayuntamiento visitarán el reloj de la ermita San Martín de Azkoitia (en la imagen). El sábado, día del barrio, tuvieron que parar el repique al per-

catarse de que la estructura de la iglesia se movía cada vez que las campanas giraban. El Ayuntamiento señaló que tomará una decisión tras la revisión del reloj. FOTO: K.F.

AZKOITIA. Josune Bereziartu izango da gaur diapositiba emanaldia eskaintzeko

Anaitasuna Mendi Bazkunaren eskutik, Josune Bereziartu eskalatalela Azkoitiko kultur etxean izango da gaur arratsaldean. 20.30ean hasiko den emanaldian, Bereziartuk *Bimbaluna 9A+* - Josune sobre la punta de los dedos diapositiba emanaldia eskainiko du. Anaitasunako kidea den Anparo Balenciagak adierazi zenez, "iaz antolatutako ekitaldietan 100 pertsona inguru biltzen ginen guztira eta Josunerekin ere jende asko agertzea espero dugu". >K.F.

AZPEITIA. Juan de Antxietia Musika Eskola celebrará esta tarde su asamblea anual

Juan de Antxietia Musika Eskola celebrará hoy la asamblea anual. La cita, que comenzará a las 20.00 horas, tendrá lugar en la sede de la propia escuela de música. El primer punto del orden del día será la lectura y aprobación del acta de la asamblea anterior. El segundo punto será la renovación de la junta directiva y a continuación se pasará a la información y balance de las actividades culturales y a la presentación del balance económico del centro. Al final de la reunión, los tutores informarán a los padres sobre el programa del curso presente. >K.F.

Los azpeitiarras nacidos en el año 1956 celebrarán una cena el 25 de noviembre

Los nacidos en 1956 han organizado una cena para el día 25 de noviembre. Se reunirán a las 19.30 horas para hacer un txikiteo amenizado por trikitilariak. A las 21.00 horas, se realizará la foto de grupo delante de la Basílica y, a continuación, empezará la cena en el restaurante Kiruri. Los 60 euros que costará la cena se pagarán el mismo día en el restaurante. Los interesados pueden apuntarse en Agirre Opari Denda, 943 811325; Tintorería Azkargorta, 943 811550 o a Arantxa Mozo, 943 810538, antes del 22 de noviembre. >K.F.